

ERANSKINA

LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMAK ETA LERROAK. (2024ko ekitaldia)

1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.

1. Helburu estrategikoa:

Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, parte hartzen duten eragileen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.

2. Helburu zehatzak:

- Herriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.
- Herritar orori zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpenera eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.
- Gazteen parte hartzea babestu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.
- Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.
- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.

3. Egikaritze epea:

Urteroko deialdiak.

4. Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarteekin egindako hitzarmen bidez emango dira.

6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzaren hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

idazkaritza-kontuhartzailletza

7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jardueri diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzatza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.500 €

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Beheko Errota musika eskola diruz laguntzeko programa.

HARTZAILEAK: Beheko Errota musika eskola.

HELBURUA: "Beheko Errota" musika elkarte pribatua aspalditik Eskoriatzan egiten ari den lana bultzatzea, eta eskoriatzarrei musika formazioa emateko eta musika zabaltzeko lanetan laguntzea.

LORTU GURA DENA: Musika eskola zerbitzua ematea eskoriatzarrei eta kontzertuak eskaintzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 80.000 €

FINANTZIAZIOA: 0400.481.326.10.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LEHIAKETAK.

HARTZAILEAK: Udalak antolatutako lehiaketetan parte hartu nahi duten eskoriatzarrak.

HELBURUAK: Antolatutako lehiaketetan herritarren parte hartzea sustatzea sariak zuzenean emanez irabazleei.

LORTU GURA DENA: Herritarrak aktiboak izatea eta parte hartzea kultur tradizioak indartzeko eta herriko kultur jardueri eusteko Udalak antolatutako lehiaketetan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 2.500 €

idazkaritza-kontuhartzailletza

FINANTZIAZIOA: 0400.480.334.00.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. Elkartea

HELBURUAK: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntzea urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Gastronomía, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.471.431.10.01 partida

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza.

HARTZAILEAK: TEPEZ Elkartea

HELBURUA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza. Besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, umeentzako ekintzak, "zapatista eguna" eta sukaldaritza tailerrak antolatzen dira.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.500 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.50.01 partida

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: #ZeDemontre

HARTZAILEAK: Eskoriatzan jaiotako edo bertan bizi diren artistak eta sortzaileak.

HELBURUA: gure herriko artistak eta sortzaileak babestea eta suspertzea, eta horretarako, tokiko eszena dinamizatzea eta oso zigortuta dagoen sektore hori babestea, beren ibilbideari ekin nahi dioten artistek zailtasunak baitituzte lehen urratsak emateko.

LORTU GURA DENA: lehiaketaren helburua eskoriatzarrek sorkuntza artistikoan eta berrikuntzan parte hartzeko bide gehiago ezartzea eta eratzea da. Eskoriatzarrei gerora egin dezaketen karrera artistikoan lehen urratsak ematen laguntzeko ekitaldiak sustatzea eta artearekiko eta sorkuntzarekiko gustua eta interesa piztea.

idazkaritza-kontuhartzailletza

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena

KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.500 euro.

FINANTZAZIOA: 0400.480.334.80.01 partida

G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AUZOETAKO JAIK

HARTZAILEAK: Eskoriatzako herritarrak edo erakundeak

HELBURUA: Herriguneko auzoetan jaiak antolatzeko gastuak ordaintzeko laguntza.

LORTU GURA DENA: Auzoetako ekintzak dinamizatzeko helburuarekin egiten diren jaietako gastuen zati bat finantzatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 9.000 €

FINANTZAZIOA: 0400.481.338.10.01

H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “ESKURTXO ipuin kontari”

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. elkarteak

HELBURUA: Arizmendi ikastolak Eskoriatzako elizateetan urtero antolatzen duen Ezkurtxo ipuin kontari programa antolatzeko gastuak ordaintzeko laguntzak.

LORTU GURA DENA: Haurrei zuzendutako jardueren bidez, hala nola ipuin-kontaketa, ibilaldiak, txokolate-jana eta jolas tradizionalak, Eskoriatzako elizateak ezagutarazten dira eta, horrela, landa-inguruneko kultura-ondarea balioesten da, materiala zein ez-materiala.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 €

FINANTZAZIOA: 0400.471.334.40.01

2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.

idazkaritza-kontuhartzailletza

1. Helburu estrategikoa:

Herritar guztiei beraien kirol eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.

2. Helburu zehatzak:

- Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarri bezala.
- Elkartegintza sustatzea kirola egitearen ondorioak optimizatzeko modu bezala.
- Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritzea jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko.
- Lagatako kirol instalazioen kalitatea hobetzea eta herritarrek horiek erabiltzea.
- Oinarrizko kirol federatua sustatzea kirol elkarteetan.
- Eskola kirola sustatzea ikastetxe publikoetan eta hitzartutako pribatuetan.
- Kirola kalean egitea sustatzea.

3. Egikaritze epea:

Urteroko deialdiak.

4. Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera, ekarpen publiko edo pribatuekin osatu ahal izango direnak.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura:

Norgehiagoka, eta zehazki, lerro zehatz bakoitzean adierazitakoa.

6. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskola Kirola

HARTZAILEAK: LEK

HELBURUA: Urteetan Leintz Eskola Kirola, beste udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eskualdean eskola kirola sustatzeko egiten ari den lana bultzatzea.

LORTU GURA DENA: Eskola kirola sustatzea 3. LH-tik 2. DBH-raino

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2023ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 32.277,95 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatza Kirol Elkartea

HARTZAILEAK: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntzea kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 34.800 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.20.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza KARATE ATAMA ELKARTEARI

HARTZAILEA: KARATE ATAMA ELKARTEA

HELBURUA: Karate Atama Elkarteari diruz laguntzea urtean zehar antolatzen dituen kirol jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kirol hori eta autobabes teknikak sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.70.01 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

HARTZAILEAK: Arizmendi Kirol Elkartea

HELBURUA: Arizmendi Kirol Elkarteari diruz laguntzea pilota, areto-futbola eta igeriketa taldeak sustatzeko egiten duen lana egiteko.

LORTU GURA DENA: Pilotako, areto-futboleko eta igeriketako benjamin eta alebin taldeak dinamizatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

idazkaritza-kontuhartzailletza

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.500 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.80.01

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: “ESKORIATZAKO RALLYSPINTA”

HARTZAILEAK: ESKOMOTOR ELKARTEA

HELBURUA: ESKORIATZAKO II. RALLYSPRINTA

LORTU GURA DENA: herritarrei beste kirol mota bat erakusteko jarduera sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000- euro

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.90.01

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ARKO TIRAKETA

HARTZAILEAK: Axtroki Arku-tiro elkarte

HELBURUA: Arku-tiroaren bitartez, kirolari bultzada ematea

LORTU GURA DENA: Kirolari bultzatzea eta Eskoriatzako herriari egindako eskaintza honetan, pertsonen parte-hartzea sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2024ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 2.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.341.30.01 partida

3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA

1. Helburu estrategikoa:

- Eskoriatzarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea.
- Pertsonen, familien eta gizarte taldeen, batez ere bazterketa arriskuan baldin badaude, berri izateko eta hainbat egoera prebenitzeko eta esku hartzeko mekanismoak sustatzea.
- Gizarte kalteberatasun egoeran dauden herritarren gizarteratzea sustatzea.

idazkaritza-kontuhartzailletza

- Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteek jarduera parte hartzaileak, prestakuntza ematekoak eta ludikoak antola dezatela sustatzea.
- Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak sustatzea eta elkarten eta erakundeen parte hartzea eta jarduerak bultzatzea arlo honetako udal eskuduntzak garatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko.
- Herri txiroenen garapenean laguntzea herritarren sentiberatasuna handitzeko ekimenak sustatuz eta bizi baldintzak hobetzen laguntzea elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako dirulaguntzak emanez.
- Hirugarren adineko pertsoneri arreta duina bermatzea egoitzan.

2. Helburu zehatzak:

- Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea.
- Gizarte kalteberatasun egoeran dauden kasuei oinarritzko beharrak, behar zehatz eta ezohikoak, norbanakoak eta familiakoak estaltzea.
- Zailtasun edota gizarte arrisku egoera murrizteko edo desagertzeko lan egitea.
- Arazoak edo zailtasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.
- Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekin jarduera koordinatua indartzea eta gizarte parte hartze aktiboa sustatzea.
- Jubilatuen elkarteak eta emakumeen elkarteak jarduerak egitea sustatzea eta erabiltzen dituzten lokal sozialak mantentzen laguntzea.
- Herriko GKEei laguntzea beraien ekimen eta lankidetzara proiektuetan herri pobreenetzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

3. Egikaritze epea: Urteroko deialdiak.

4. Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak prozedura hauen bidez emango dira: norgehiagoka, aurrekontuan izenarekin agertzen diren erakundeekin hitzarmen bidez tramitatuta eta interes sozial, ekonomiko edo humanitarioarengatik zuzenean emateko laguntza lerroak.

6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berariazko lankidetzara hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.

7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

idazkaritza-kontuhartzailletza

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza Olazar jubilatuko elkarteari.

HARTZAILEAK: Olazar jubilatuko elkartea.

HELBURUA: Olazar jubilatuko elkarteari diruz laguntzea beraien ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako nagusien bizi kalitatea hobetzea eta herrian parte hartze handiago izan dezatela sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.500 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.337.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Diru laguntzak GKEei

HARTZAILEAK: Beraien jarduera programaren helburuarekin bat etorri eta Eskoriatzan egoitza duten edota jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde edo elkarteak (GKE).

HELBURUA: Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak ematea garapen bidean dauden herrietako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendutako garapenerako lankidetzak programak gauzatzeko.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan presentzia duten gobernuz kanpoko erakundeen bidez lankidetzak proiektuen garapenean laguntzea, eta era berean, herritarren artean boluntariorik sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 7.500 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.20.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: tratamenduak jasotzeko dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: substantzia batekiko edo bestelako menpekotasun bat duten herritarrak.

HELBURUA: Tratamendua jasotzeko bidaia gastuak ordaintzea.

LORTU GURA DENA: Drogamenpekotasuna duten eskoriatzarrei osatzeko tratamendua eskuragarri egitea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.500 €

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.60.01 partida

idazkaritza-kontuhartzailletza

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Beraien jarduera gizarte ekintzetan egiten duten elkarteentzako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Beraien jarduera Eskoriatzan egiten duten edo eskoriatzarrak hartzen dituzten edo eskoriatzarrei zerbitzuak ematen dizkieten legez eraturako eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatutako eta programa honetako helburuarekin bat datozen elkarteak.

HELBURUA: Beraien jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten elkarteei dirulaguntzak ematea beraien funtzionamendu gastuetarako zein beraien elkartearen jardueraren xede diren taldeei zuzendutako programa zehatzak egiteko edota zerbitzuak emateko.

LORTU GURA DENA: Administrazioaren gizarte ekintzaren lan osagarriak egiten dituzten elkarten jarduerak sustatzea eta elkarte horiek herrian izatea bultzatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: Guztira: 5.700 €:

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.00.01 partida: 4.700 €

0300.481.231.60.01 partida: 1.000 €

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Dirulaguntza: larrialdi plana.

HARTZAILEAK: behar beste baliabiderik ez duten herritarrak.

HELBURUA: dirulaguntza ematea premia egoeran daudenei.

LORTU GURA DENA: gizarte talde ahulenen oinarrizko beharrei erantzutea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 85.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.480.231.30.01 partida

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA

HARTZAILEAK: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Egoitza egokitzeko obrak egiteko Fundazioak eskatutako eta finantza-erakundeek emandako maileguren amortizazioa finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonen. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea.

idazkaritza-kontuhartzailletza

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.471.231.91.01

G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JANARI BONOAK

HARTZAILEAK: 6 hilabetean behin oinarrizko gizarte-zerbitzura bazkarirako laguntza eskatzera joaten diren iragaitzazko bidaiariak.

LORTU GURA DENA: Iragaitzazko pertsonak janari aldetik dituzten oinarrizko beharrak arintzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 400 €

FINANTZIAZIOA: 0300.480.230.11.01

H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Laguntza ematea “PAUSO BERRIA” programari.

HARTZAILEA: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Beraien mugetara egokitutako lan esperientziaren bidez laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako jendeari, adimen urritasun ez larria dutenei esaterako, lan aukerak gehitzea.

LORTU GURA DENA:

- Minusbaliotasunak dituzten kolektiboentzako gizarteratze normalizatua bultzatzea lan jardueraren bidez.
- Garapen pertsonala eta lanerako aukerak hobetzea.
- Gizarte justuagoa eta solidarioagoa lortzen saiatzea, babesgabeko kolektiboek diskriminazio positiboa eginez.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 5.250 €

FINANTZIAZIOA: 0300.471.231.90.01 aurrekontu aplikazioa.

I) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LAGUNTZAK GKE-EI URTEROKO PROIEKTU EDO PROGRAMETAN AURREIKUSI GABEKO PREMIA BEREZIKO EGOEREN AURREAN.

HARTZAILEA: Irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundeak, beraien jarduerak salbuespenezko edota aurreikusi ezinezko egoera berezietan edo larrialdietan dauden elkarteei, erakundeei edo pertsona fisikoei zuzenduta daudenak.

idazkaritza-kontuhartzailletza

HELBURUA: udal gizarte laguntzen beste programaren batean aurreikusita ez dauden eta esku-hartu behar dela uste diren gizarte intereseko beharren aurrean dirulaguntza ematea.

LORTU GURA DENA: Gizakiak edo natura-hondamendiek sortutako aurreikusi ezinezko egoerak arintzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: zuzena

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 1.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.481.230.22.01

J) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA- ur hornidura-sarea egokitzea.

HARTZAILEA: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Ur hornidura eta sarearen egokitzapena ur-kontsumoa irakurri ahal izateko.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonen. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea eta duen gastu arrunta ordaintzen laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Izenduna gauzatan, ur horniduraren kasuan; eta, izenduna dirutan, ur-kontsumoa irakurri ahal izateko sarea egokitzeko lanak egiteko.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.000 €

FINANTZIAZIOA: 0300.471.231.92.01.2022

4. LERRO ESTRATEGIKOA: ALKATETZA.

1. Helburu estrategikoa:

Udal taldeei Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan aurreikusitako diru zuzkidura bermatzea.

Erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea eta udalaz gaindiko interesa duten programak garatzen laguntzea.

idazkaritza-kontuhartzailletza

2. Helburu zehatzak:
 - Aurrekontu kreditua izendatzea udal taldeak diruz laguntzeko.
 - Ondare historikoa gordetzen eta mantentzen laguntzea.
3. Egikaritze epea: **Urterokoa.**
4. Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura: Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.
6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana aurrekontua betearazteko arauan ezarritako irizpideen arabera egingo da.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: DIRU IZENDAPENA UDAL TALDE POLITIKOEI

HARTZAILEAK: Udal taldeak.

HELBURUA: Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan aurreikusitako diru zuzkidura.

LORTU GURA DENA: Taldeen funtzionamendua finantzatzeko laguntzak.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 12.000 €

FINANTZIAZIOA: 0200.481.912.00.01 partida

5. LERRO ESTRATEGIKOA: EUSKARA

1. Helburu estrategikoa:

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea Eskoriatzan.
2. Helburu zehatzak:

idazkaritza-kontuhartzailletza

- Adin nagusiko Eskoriatzarrei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea.
 - Euskarazko errefortzuak eskaintzea 16 urtetik beherako ume etorkinei herriko bizitza sozialean eta irakaskuntza arautuan –non komunikazio hizkuntza euskara den– integrazio handiagoa lortzeko.
 - Merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea.
 - Gazteak aktibatzea eta motibatzea hainbat arlotan euskara erabiltzeko.
 - Eskoriatzan euskararen erabilera normalizatzeko udal jarduera zehatzetan laguntzea.
3. Egikaritze epea:
Urterokoa.
 4. Finantzazio iturriak:
Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
 5. Dirulaguntzak emateko prozedura:
Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.
 6. Jarduera plana:
Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da.
 7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Euskara ikasteko dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Euskaltegian matrikulatuta egon eta Eskoriatzan erroldatuta daudenak.

HELBURUA: Euskara ikastaroak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Euskararen ezagutza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 500 €

FINANTZIAZIOA: 0400.480.335.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Hizkuntz errefortzutarako dirulaguntzak.

idazkaritza-kontuhartzailletza

HARTZAILEAK: Haur hezkuntza edo lehenengo hezkuntzako 4. mailara arte ikasten ari diren eta beraien adinerako behar besteko euskara mailarik ez duten Eskoriatzako ikasleak.

HELBURUA: Hizkuntz prestakuntza ematea euskararen ezagutzan eta erabileran zailtasunak dituzten ikasleei.

LORTU GURA DENA: Ikasleei behar besteko euskara maila ematea beraien ikasketak behar besteko ezagutzarekin jarraitu ahal izateko, eta gainera, horrek herriko bizitza sozialean integratzen lagunduko die.

DIRULAGUNTZA MOTA: Laguntza jenerotan emateko norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2000 €

FINANTZIAZIOA: 0400.480.335.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Goiena Komunikazio Koop.E.-ri dirulaguntza.

HARTZAILEAK: Goiena Komunikazioa Koop.E.

HELBURUA: Debagoieneko gainerako udalekin batera, eta Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak emandako laguntzekin, Goiena Komunikazio Koop. Elkarteak euskarazko komunikabideen arloan egiten dituen jarduerak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Euskararen normalizazioa eta sustapena, eta horrekin batera, Debagoieneko herritarrei herriko gaien gaineko jarduera publiko zein pribatuei buruzkoa informazio eguneratua, askotarikoa, objektiboa eta kalitatezkoa ematea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 35.860 €

FINANTZIAZIOA: 0400.471.335.00.01 partida

6. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA SUSTATZEA

idazkaritza-kontuhartzailletza

1. Helburu estrategikoa:
Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea eta kultur eskaintza hobetzea herritarrei, orokorrean, zuzendutako hezkuntza, kultura, berdintasuna, ingurumen dibertsitatea eta inklusibitatea bultzatzeko jarduera eta proiektuen bidez.
Herriko ikastetxeen mantentze-lanetan ere laguntzea.
2. Helburu zehatzak:
Hezkuntza arautuaren eremuan Eskoriatzan ari diren irabazi asmorik gabeko ikastetxeen jarduerak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.
3. Egikaritze epea: Urterokoa.
4. Finantzazio iturriak: Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehaztetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura:
Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.
6. Jarduera plana:
Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatutako jarduerak.

HARTZAILEAK: Luis Ezeiza Herri Eskola

HELBURUA: Ikastetxeak 2024an, programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrira, egindako jarduerak eta ezohiko proiektuak finantzatzeko puntualki laguntzea.

LORTU GURA DENA: Ikastetxeak proposatutako jarduerak egingo direla bermatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.190 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.481.323.40.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Arizmendi Ikastolak antolatutako jarduerak.

HARTZAILEAK: Arizmendi Ikastola

HELBURUA: Ikastetxeak 2024an egindako jarduerak eta proiektuak finantzatzen laguntzea.

idazkaritza-kontuhartzailletza

LORTU GURA DENA: - Ikastetxeak 2024an, programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrira, egindako jarduerak eta ezohiko proiektuak finantzatzeko puntualki laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.190 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.471.324.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Arizmendi ikastola kooperatibarekin hitzarmena.

HARTZAILEAK: ARIZMENDI ikastola.

HELBURUA: Arizmendi ikastolari dirulaguntza mantentze-gastuei aurre egiteko.

LORTU GURA DENA: Arizmendi ikastolaren azpiegituren mantentze-lanetan laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.471.324.00.02 partida

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Koldotxo Guraso Elkartek antolatutako ekintzak.

HARTZAILEA: Koldotxo Guraso Elkartea

HELBURUA: 2024an egindako jarduerak eta eskolaz kanpoko proiektuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: eskola publikoaren baloreak proiektatzeko eta transmititzeko elkarteak Eskoriatzan egindako jardueretan laguntzea. Inklusibitatea, euskalduntzea, elkartasuna, kooperazioa eta beste balore batzuk, gure gizarteak justuagoa eta bidezkoagoa egiten dutenak.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.500 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.481.323.50.01 partida

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: EKKO programarako begiraleak formatzeko dirulaguntza.

idazkaritza-kontuhartzailletza

HARTZAILEAK: Hezkuntza ez formalean, haurakin eta nerabeekin (17 urtera arte) lanean aritzen diren begiraleak. edo lanean aritu nahi dutenak.

HELBURUA: EKKO programarako begiraleak formatzea.

LORTU GURA DENA: hurrekin eta nerabeekin harremanetan (kiroletan, ludoteketan, gaztelekuetan...) dauden edo etorkizun batean egongo diren begiraleak formatu nahi dira. Begirale horiek, haurren autoestimuan, komunikatzeko moduan, erabakiak hartzeko moduan eta gatazkak konpontzeko moduan nola eragin ikas dezaten. Formazio honetatik begiraleek trebetasun sozialak lantzeko ariketak programatzen ikasiko dute ondoren erabiltzeko.

DIRULAGUNTZA MOTA: norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.100 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.480.337.20.01

7. LERRO ESTRATEGIKOA: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA

idazkaritza-kontuhartzailletza

1. Helburu estrategikoa: Eskoriatzan garapen ekonomiko jasagarria eta enpleguaren sustapenaren alde egitea herritar guztien bizi kalitatea eta ongizatea igotzeko.
2. Helburu zehatzak:
 - Enplegua sortu eta baliabideen jasagarritasuna bermatzen duten enpresa proiektuak hazten eta finkatzen laguntzea.
 - Kalitatezko enpleguaren sorpena sustatzea.
 - Ekintzailletza dinamizatzea herrian.
 - Gertuko merkataritza dinamizatzea eta sustatzea.
 - Eskoriatza sustatzea bidaia-antolatzaile publiko eta pribatuekiko loturak indartuz eta eskaintzaren berrikuntza eta dinamismoa sustatuz.
3. Egikaritze epea: Urterokoa.
4. Finantzazio iturriak:

Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.
6. Jarduera plana:

Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: MERKATARITZA

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak,

- lokal huts batean merkataritza edo zerbitzuetako proiektu berria sustatzen badute,
- edo martxan dagoen negozioaren bat eskualdatuta hartu eta negozioaren titular egiten badira.

HELBURUA: Merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko lokal hutsak alokatzeko edo erosteko dirulaguntzak.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzan bertako merkataritza eta kontsumoa indartzea eta mantentzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 6900 euro

idazkaritza-kontuhartzailletza

FINANTZIAZIOA: 0100.471.431.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: NEGOZIOEN SUSTAPENA: EUSKARAZ ERROTULATZEA ETA IRUDI KORPORATIBOA HOBETZEA.

HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkatariak eta autonomoak.

HELBURUA: Herriko enpresetan eta merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan errotuluak euskaraz jartzeko eta beraien irudi korporatiboa hobetzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako enpresetan eta merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan errotuluak euskaraz jar daitezen eta beraien irudi korporatiboa hobetu dadin sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 1.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0100.471.431.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LANDA GUNEA SUSTATZEA

HARTZAILEAK: Eskoriatzako elizateren batean edo Lete auzoan erroldatutako edo egoitza soziala bertan duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

HELBURUA: Udalerriko landa guneeetako jarduera sozio-kulturala edota ekonomikoa dinamizatzea.

LORTU GURA DENA: Landa bizitzaren garapena edota jarraipena sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8000 euro

FINANTZIAZIOA: 0100.481.454.00.01

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: _ESKORIATZAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO EROSKETA BONUAK.

HARTZAILEAK:

- Egoitza soziala Eskoriatzan duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduen titular diren pertsona fisikoak eta juridikoak.
- Eskoriatzako herritarrak.

HELBURUA: Eskoriatzako herritarrentzat erosketak bonuak prestatzea egungo egoerak kaltetutako herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan gastatzeko.

LORTU GURA DENA: Herrian kontsumitzea sustatzea eta egungo egoera ekonomikoa arintzen laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

idazkaritza-kontuhartzailletza

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 14.000 €

FINANTZIAZIOA: 0100.480.431.00.01

E) **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA** MERKATARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO #EUSKADIBONODENDA KONTSUMO BONOAK

HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkataria eta autonomoak (Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak zehaztu ditu zeintzuk diren programan sartzen diren negozioak).

HELBURUA: Udalerriko saltoki eta zerbitzu establezimenduetan kontsumoa sustatzea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako udalerrian dagoen eskaintza komertziala mantentzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.

FINANTZAZIOA: 0100.480.431.00.01

8. LERRO ESTRATEGIKOA: LANDA GUNEEN SUSTAPENA.

1. Helburu estrategikoa: Elizateetako bizilagunen bizi kalitatea hobetzea eta sistema orokorrak eta talde ekipamendu komunitarioak erabili ahal izatea bermatzea.
2. Helburu zehatzak: Argiteria sistema hobetzea.
3. Egikaritze epea: Urterokoa.
4. Finantzazio iturriak: Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura: Lerro zehatz bakoitzean jasotakoa.
6. Jarduera plana: Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion deialdirako oinarrien bidez eta aurrekontuan agertzen diren izendun erakundeekin hitzarmenak tramitatuta egingo da.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: BASERRIETAKO ARGITERIA

idazkaritza-kontuhartzailletza

HARTZAILEAK: Landa gunetako egoitza-higiezinaren titularrak.

HELBURUA: Landa gunetako egoitza-eraikinetarako sarbideetan argiteria jartzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Landa gunetako argiteria hobetzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 700 euro

FINANTZIAZIOA: 0100.480.165.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: UDALAZ KANPOKO UR HORNIDURA SISTEMAK LANDA GUNETAN

HARTZAILEAK: Elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarteek, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa gunean baldin badute.

HELBURUA: Landa gunetako udalaz kanpoko ur hornidura sareetan edo, salbuespen gisa eta deialdiko oinarrietan ezarritako moduan aurrez justifikatuta, sare indibidualetan egin beharreko jarduerak, betiere, honako helburuak dituztenak:

- Ur-bilketen, ura eramateko bideen, deposituen, arazketa eta desinfekzio ekipoen edo ur horniduraren kalitatea edo fidagarritasuna hobetzeko beste elementu batzuen konponketa edo mantentze-lanak.
- Baserriak, ur hornidurari lotunerik ez duten etxebizitzak eta eraiki berri diren etxebizitzak ur hornidura kolektiboko sareari lotzeko lotune berriak egiteko obrak. Baserrietako abeltzaintza ustiaketa instalazioetarako lotuneen kasuan, lotunea baserriak duenetik ezin dela egin justifikatu beharko da.

LORTU GURA DENA: Landa guneko ur hornidura sareak hobetzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 20.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0100.481.161.00.01 partida

c) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: "AUZO TAXIA"

HARTZAILEAK: elizateetako biztanleak.

HELBURUA: oinarrien helburua da garraio publikoaren zerbitzu erregularra erabili ezin duten landa-auzoetako biztanleei udalerrri barruan bidaiatzeko taxi-zerbitzua diruz laguntzea hirigunera modu jasangarrian eta egokian joan ahal izateko.

idazkaritza-kontuhartzailletza

LORTU GURA DENA: Landa gunean bizi kalitatea hobetzea bertakoei mugikortasuna bermatuta.

DIRULAGUNTZA MOTA: zuzena

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 10.000 €

FINANTZIAZIOA: 0100.480.441.20.01

9. LERRO ESTRATEGIKOA: INGURUMENA

1. Helburu estrategikoa: Eskoriatzan, ingurumena babestu eta hobetzea.
2. Helburu zehatzak:
 - 1.- Udalerriak dituen baliabide naturalen ezagutza zabaldu eta horien zaintza-premiari buruz kontzientziaztea.
 - 2.- Energia eraginkortasuna eta aurrezkia sustatzea.
3. Egikaritze epea: urteroko deialdia.
4. Finantzazio iturriak: Udal aurrekontua, jarduera planean eta lerro zehatzetan jasotako aurrekontu aplikazioen arabera.
5. Dirulaguntzak emateko prozedura: Lerro estrategiko hau egikaritzeko dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez edo aurrekontuan laguntza izendunak dituzten elkarrekin egindako hitzarmen bidez emango dira.
6. Jarduera plana: Lerro estrategiko hau egikaritzeko jarduera plana deialdietarako oinarriak eginez edota berriazko lankidetzak hitzarmen bidez egingo da ondorengo dirulaguntza lerro bakoitzerako.
7. Dirulaguntza lerro zehatzak:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: IKASTETXEKLK PROIEKTUA

HARTZAILEAK: Gizabidea Fundazioa (D2030en bulego teknikoa)

HELBURUA: Luis Ezeiza herri eskolan eta Arizmendi ikastolako Almen gunean, ur eta energia aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzea, hezkuntza komunitate osoarekin lankidetzan eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Honetarako D2030 egitasmoaren baitan IkastetxeKlik proiektua daukate.

LORTU GURA DENA: Luis Ezeiza Herri Eskolan eta Arizmendi ikastolako Almen gunean IkastetxeKlik proiektua ezartzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.



**Diru Laguntzen
Plan Estrategikoa 2024 - 2027**
2024. ekitaldia

idazkaritza-kontuhartzailletza

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro

FINANTZIAZIOA: 0100.481.170.00.01 partida